


**ULIAKO ERROTA**  
**F MAILA**
**ULIA PAS, Z.G.**

**Egilea eta data: ezezagunak**
**Deskribapena**

Planta hexagonaleko piramide enbor itxurako eraikina, eraikinaren kanpoko harlanduzko inguratzailea soilik kontserbatzen da. Bao ugari du, arku lau dobelatuekin ebatzita. Baoen antolamendutik ondorioztatzen da hiru maila izan zituela (behe oina eta bi goi oin). Uliako parkea deritzanean barne hartzen zen, haitzetako txaletaren izenarekin. Arbeleko estalki puntaduna zuen, baita zurezko balkoi hegalduna bigarren oinean ere. Behe oina zurezko terraza handi baten azpian ezkutatuta geratzen zen, eta bertatik sartzen zen zuzenean bigarren oinera. Elementu hori mendearen hasieran garatu zen eta zutik dirauen Uliako parkeko elementu eraiki urrietako bat da eta bertako memoriaren erreferentzia da. Bi puntu horretan oinarritzen da elementu honen babesa.

**Babes erregimena**

- 1.- Babes erregimen orokorra:  
Plan Berezi honen F babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
  - A.- Babestu gabeko elementuak: ez.
  - B.- Elementu edo zati iraunkorrak: guztiak (kanpoaldekoak).
  - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: elementu horretan jardunak egiten badira, aurretiazko egoera leheneratzera joko da.
  - D.- Nahitaezko lehengoratzek: ez.